



ORIOKOU DALA



Honen bitartez jakinarazten dizut Alkateak, 2022eko otsailaren 7ko, 46/2022 zenbakidun Dekretuaren bidez, honako erabakia hartu duela:

Orioko Udalean aldi baterako programa bat martxan jartzeko modernizazio- eta berrikuntza-teknikari bat kontratatzeko hautaketa-prozesua 2021eko azaroaren 22an hasi zuen Orioko Udalak, oinarriak argitaratuz Orioko Udalaren webgunean eta Lanbideren webgunean.

Deialdi hori hutsik geratu zen inongo hautagairik ez baitzuen eskaintza onartu.

Hori dela eta, Udalak bigarren deialdi bat egin zuen 2022ko urtarrilaren 17an, oinarriak argitaratuz Orioko Udalaren webgunean eta Lanbideren webgunean. Hautaketa-prozesurako eratutako epaimahai kalifikatzailea honela osatuta dago:

- **Epaimahaiburua:** Jon Carrera Jauregi, Orioko Udaleko idazkari-kontuhartzailea.
- **Kideak:**
 - Pilar Azurmendi Etxegarai, Orioko Udaleko arkitektoa.
 - Jabier Zabaleta Iraola, Orioko Udaleko euskara- eta hezkuntza-teknikaria.
- **Idazkaria:** Maria Jose Manterola Aragon, Orioko Udaleko administraria.

Hautaketa-prozesua Lanbideren bidez egin da. Hautagitzak jasotzeko epea amaituta, baldintzak bete eta dokumentazioa behar bezala aurkeztu duen hautagai 1 dago, eta epaimahaiak hori baloratu du, 2022ko otsailaren 1ean egindako bilkuran. Bilkura horren ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen Udalak otsailaren 1ean, eta hiru laneguneko epea eman zien hautagaiei, erreklamazioak eta dokumentazio osagarria aurkezteko.

Epaimahaia 2021eko otsailaren 7an bildu da, aurkeztu diren erreklamazioak aztertzeko.

Hautagaietako inork ez du erreklamaziorik aurkeztu eta epaimahaiak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, merezimenduen behin betiko kalifikazioa eta lan-eskaintzaren hurrenkera proposatu dio alkateari.

Emaitzak aztertuta, oinarrietan jasotzen diren baldintzak betetzen dituen hautagai bakarra dago. Beraz, hautagai horri egingo zaio eskaintza.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7 /1985 Legearen 21.1 artikulua, apirilaren 18ko 781/L986 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Eraberritutako Testuaren 24. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege



Dekretuz onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide juridikoaren Araudiaren 41. artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, hau

ERABAKITZEN DUT

ARGITARATZEA modernizazio- eta berrikuntza-programa martxan jartzeko teknikari bat kontratatzeko bigarren deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta merezimenduen behin betiko kalifikazioa eta hurrenkera, segidako taularen arabera:

ONARTUAK					
NAN-a	C2	Lan esperientzia*	Formazio arautua	Formazio Ez arautua	GUZTIRA
72546163T	BAI	10,4	0	2	12,4

BAZTERTUAK	
NAN -a	
72460286M	
44332979L	

Jakinarazten dizugun erabaki edo ebazpen hau behin-betikoa da administrazio bidean eta honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jar dezakezu Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazpen hau jasotzen duzunik kontatzen hasita.

Hori baino lehen, hala ere, AUKERAZKO BIRJARPEN ERREKURTSOA jar dezakezu alkate-presidentearen aurrean, hilabeteko epearen barruan jakinarazpen hau jasotzen duzunik kontatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango duzu errekurtsoko kontentzioso-administratiborik jarri birjarpen errekurtsoa erabaki edo atzera bota arte.

Egoki iruditzen zaizun beste edozein errekurtsoko ere jar dezakezu.

Jakin dezazun eta horren ondorioz joka dezazun jakinarazten dizut aurrekoa.

Orio, 2022ko otsailaren 7a

Idazkaria,

Jon Carrera Jauregui